

**EUSEBIO ERKIAGA, MEDIKUNTZA ARLOKO ITZULTZAILE:  
ZAIN TIRATU, ZAIN URRATU, ZAINA BERE LEKUAN SARTU (I)**

**1. Oro har: zain tiratu, zain urratu**

Bizkaia XX. mendean eman dituen idazleen artean goi maila zor zaio, zalantza nimirik gabe, Eusebio Erkiaga (1912-1993) lekeitiarrari. Soka luzea izan da autore horrena euskal letretan, genero mota guztiak landu baititu horren lumak eten-gabe. Kazetari nahiz antzerkigile, hizlauz zein olerkiz, punta-koen artean izan dugu aspalditik lekeitiarraren ahalegina.

Hari emankor horretan, alabaina, itzultze lana ezin bazter utzi. Lan horren katebegiek euren barnean hartzen dituzte literatura bera (George Simenonen *Aspaldiko Maigret* edota Platonen *Parmenides*), zuzenbide giroko autoak (*Concierto Económico, Bizkaiko Batzar Nagusietako Batzar-Agiriak: 1979-1983*) eta, evezaguntxuak badira ere, medikuntzaren alorrekoak.

Gerra aurreko idazle prestuak laster igarri zuen, lumaren nekeak tartean, itzultze, edo hobeto esanda, euskaratze lanak ekar ziezazkiokeen ajeak eta katramilak. Aitortu ere, hala aitortzen du berak, 1988. urtean, bere lan guztien zerrenda gauzatze unean:

*1981. Concierto Económico. Itunben Ekonomikoaren testu osoa euskerara itzuli eban. Egin dauan lanik gatxena.*

Lekukotza zuzenagorik, beraz, ezin. Horren adibideak, bestalde ere, irakurlearen eskura EIZIE elkartea berrikitan apailatutiko *Itzulpen Antologia I* liburuan.

Gatozen, haatik, gure jatorrizko xedera. Literaturaz landara, gogoratu beza irakurleak bi esparru nagusitan banatu izan dugula itzultzalearen ekina: medikuntza eta zuzenbidea. Biotan gi-zartearekiko harreman zuzenak, biotan giza sustraia eta erroak nonahi. Azken finean, bi-biotan ere nabari, ia nabarmen, gizakiarekiko kezka eta arrengurak. Giza arduraz mamitu ohi diren bizibide guztien antzera, biotan ere, euskarari dagokionez, mende frankoren eskarmentua. Izan ere, bi arlotan genuen antzinatik zetorkigun herri ahotsa, gauzak eta egitadak nola izendatu, nondik biribildu eta zeren bidez emateko erakusten ziguna.

Zuzenbideari zor zaiona ukatu gabe, medikuntza dugu orain aztergai. Historiaren bilakaera luze horretan, hala ere, bestelakoik badago. Tradizioaren letoan, ezin alboratu, medikuntza alorrean, zuzenbidean ez bezalaxe, euskarazko liburuak esku-ra zirela. Ez nahi adinako aukeran, bai, ordea, herri xehearen premiei aurre egiteko modukoak.

Orrialdeotara aldera dezagun, erakusbidez, 1899. urtean Martin Aramburu eta Manuel Bago Agirre bikoteak eskaini zuena, *Erriko Jendeentzat Osasun legeak eta medikantzako Argibideak* liburua, hain zuzen ere.

Liburu horretan azaltzen dira, modurik errazenean, orduko medikuntza jakituriaren zertzeladak. Orrialde horien hizkuntzak gaztelania eta euskara dira, euskararen erabilera *hala nabita* egiten dutela egileek, medikuntzaren eta, lehen esan legez, herri xehearen arteko komunikazioa hobetu nahian.

Argiro aldarrikatzen dute autoreok euren jomuga:

*"gure asmoa ez da besterik izandu, ez bada erriko jendeai erakus-tea zenbait gaxo edo gaitz maizten eta ugarien sortutzen diranak, zer nolakoak izan oi diran eta nola alde egiñ litzatokean gordeaz bear bezela osasun legeak."*

Itzultze lana, nonbait, gipuzkoarrek jorratua.

Bada, nolanahi ere, liburu horretan besterako jakinbiderik. Egileek, ezinbestean, medikuntzaren hainbat berba, hitz eta hitz-joko erabili behar izan zituzten euren egitekoari amaiera emateko. Horretara lerratuta, aita Larramendi eta horren segidakoak jarraitu zituzten egileok. Ez, ostera, noiznahi eta nolanahi. Liburu horren argitalpen arestikoaren hitzak dituzu jarrai-koak, irakurle, diogunaren lekuko gisa:

*"euskal-errian zenbait medikantzako eta gaxoen gañean jakitea ona dan gauzak zabaldutzeagatik asiera eman diogu esku-arte-an daukagun liburutxo oni, eta onegatik erderaz egin deguna biurtu degu euskerara esleituaz gure probintzi Gipuzkoako ho- netan usariyo dan itzkuntza zergatik uste izan degun au geie- nenbat itz egiten dala euskal errian eta ongi a dierazotzen dituala erdaraz ipiniñako gauzak. Onetarako baliyuatu gera gar- bien ta errazen euskal-erriko jendea konturatu litekean itzetatik, osoro eta ez itzez itz erdaldunean ipiniñi deguna euskerara biur- tuaz, baizik iritzi diogun alderdirik errazena billatuaz gure as- moan bear dan argibidea emateko..."*

Argi ikusten denez, badakite bi autoreok ongi moldatzen euskarak tradizioaren oinarrian zuen altxor preziatua eta euren beharrizanetara ere jartzen. Medikuntza arloko dibulgazio eta plazaratze lana ez da, itxuraz, egunotan hasitako solasa.

Ezagunak dira, harrezkero ere, mota desberdinako ekime-nak. Gerra giroan Euzko Jaurlaritzak sortu zuen Medikuntza Fakultatea eta bertako ikasketen egitasmoa, *sendakintz-euzke- ra* barne (1936. urteko azaroaren 21eko Agindua-EAE, 45). Gerotxuago ere, beste agindu baten bidez (1936. urteko lotazila-ren 15ean-EAE, 71) José Zinkunegi jauna agertzen da irakasgai horren irakasle. Aspaldik zetorren gogoa, beraz, zeharo gauza-tua. Hala aitortzen du Euzko Jaurlaritzak ere, Medikuntza Fa-kultatea antolatzeko unean, aginduan jarri eta berehala (1936. urteko urrilaren 9an-EAE, 4):

*"Euzkadi'ko izkuntza arazoa aintzakotzat arturik, euskera irakatzia izango da Osakintza Ikastola, osagileak izan oi dutene-guneroko jardunari egoki izango zaion eran; Belgic eta Suiza'n erri-izkuntzak jakin erazten dituztela gogoan izanda".*

Gerra ostean isilune luze eta beltza. Lantzean behin, izpi solteak eta abiaburu berri batetik hasita, UZEI erakundearen lana.

UZEIk, esan legez, izpiritua berria zekarren. Terminologia zientifikoari atxikita, laster gailendu zen erakunde horren emaitza medikuntza alorrean. Aipa dezagun, besteak beste, *Medikuntzaren* inguruko hiztegi sorta.

Horren sokakoak ditugu, zalantarik gabe, azken urteotan Udako Euskal Unibertsitatean eginiko lana, Euskal Herriko Unibertsitatearen Medikuntza Fakultatearen ahaleginak eta, batik bat, Osasungoa Euskalduntzeko Erakundearen (OEE) emaitzak, Osakidetzaren ekarrria ere ahaztu gabe.

Berrikitan landu du OEEk bere zazpigaren bilera, mediku aldra baten partehartze zuzenarekin. Bizkarrezur bihurtu zaigu, aspaldi honetan, erakunde horrek euskara medikoaren inguruau egiten duena. Hala izanda ere, gogoratu behar ditugu gure jardunean zuen eta artez bertaratzen diren bi lan terminologiko: *Anatomiako Hiztegia* eta *Ihardunaldi Medikoetako Hiztegia*. Horretara sortu eta garatu da ezari-ezarian baina etenik gabe, egun euskararentzako errealitate bizi eta gozo den medikuntza giro euskaldun hori.

## **2. Erkiaga eta Academia de Ciencias Médicas de Bilbao delakoaren Gaceta Médica aldizkaria: zatna bere lekuau sartu**

Aurrekoak gorabehera, Erkiagak medikuntzaren lanari ekiten dio. Egin dezagun, gaingiroki bada ere, abentura horren historia laburra. Lehen zantzua nondik etorri zitzaigun ere aipatu beharra dago, hasiera emateko gertaeraren ehotzeari.

Jakina denez, Eusebio Erkiagak BILBAO udal aldizkarian txitean-pitean idatzi ohi zuen. Artikulu motzak, luma zorrotzekoak, Bilbo inguruko kontuak azalarazten dizkigutena.

Halako batean, lanak edo eraginda, lekeitiar bilbotartu honrek gogoratu egiten digu aspaldiko *Academia de Ciencias Médicas de Bilbao* delakoak argitaratzen duen aldizkaritxo edo boletina.

Horren hitzak esanguratsuak gerta dakizkigu ke gure zereginan:

*Medikuen Agerkaria Bilbon (BILBAO, 17, 26 o.)*

*Ezterako zaratakit eta espanurik bage, bementxe daukagu Bilbon, mediku ikastun eta osagile onak eurrez izan diralako, hemengo Mediku Jakintza Akademik mamindua eta lazeratu ohi dauan agerkaria. Ehun urte beteko ditu laster: ba, aldizkari hori, "Gaceta Médica" bere izenez, 1894garren urtean sortu ebelako. Honean da, Espanako mediku aldizkarietan zabarrena, dekano da ta. Aldizkari jatorra ta ofiziala, bere eremu berezian.*

Nolanahi den ere, hitzok ez digute argitzen nondik bideratu zuen lekeitiarrak lanerako agindua. Urte andana ibili zen Erkiaga langintza horretan (1978-1990), alegia, *Gaceta Médica* horren artikuluetan, euskarazko laburpenen egile.

Agindua, haña ere, nonbaitetik etorri eta jatorria joateari biderik ziurrena iritzi diogu. Idazle lekeitiarraren alaba nagusia, Sara, bera ere medikua, gure jakite iturria izan da. Berak argitu digu lan horren lorratza. Sarak berak gauzatu zuen egitekoa osagilekide zuen Fernando Astorkiren bidez. Fernando Astorki, sasoi hartan, Bilboko *Academia de Ciencias Médicas de Bilbao* arduradunetarikoa genuen. Arduradun zen hark Erkiaga bereganatu eta lotu zuen langintza horretan. Astorkik berak inoiz esan ohi digunez, lanpeturik zegoen jada Erkiaga, baina agindua gogoz onartu zuen, etxeko giro medikuzaleak edo bultzatua.

Lana, esan bezala, ez zen erraz moldatzekoa. Aldizkari horren zenbaki bakoitzean osagileek paraturiko artikuluak, beste askoren itxuran, laburpenen bidez ematen ziren, artikuluaren mamia gaztelaniaz ezeze, ingeleseraz eta euskaraz ere kanporatzeko. Hizkuntz ordena horretan emandako horiek badute, edozein modutan ere, erakuslanerako berebiziko eskuera, laburpen bakoitzaren azkenean bistakoak baitira *palabras clave, key words* edo *giltz-itzak*.

Letra beltz baten bidez adierazita, hortxe dabilzkigu, jirabiran, medikuntzaren hainbat esamolde, termino, hitz soil eta jokodun.

Horiek izan ditugu abiaburu nagusiak eta horietan zehar ibili gara Erkiagak lan berezi horretarako atondu zuen hiztegia erdietsi guran.

Bestelakorik egiteko aukera ere bagenuen, hau da, testu hautaketa egin eta beroriek papereratu, testuoi dagozkieken zertzeladak eta ñabardurak eginda.

Irteera horri bidea erabat itxi ez badiogu ere, hiztegintzan sartu gara artez eta moldez, horretan ikusi baitugu gure ekarpenik gogoangarriena.

Argitzekoa izango litzateke eta azpimarratzekoa ere, aipatu den moduan, hiztegintza horrek ez duela, Erkiagaren aldetik bederen, beren beregi egindako zerbaiten antza edo itxura. Horretarako beharrezkoa izango litzatekeen sistematizazio eta egituraketa falta zaio.

Autoreak berak badaki hori eta euskal ordainak ematerakoan, ez du beti bide beretik jotzen. Batzueta gaztelaniazko mailegua dena besteetan hizperri bihurtu zaigu eta gehienetan ere, euskararen altxor bitxia.

Gera bedi argitrik, aurrekoaren ondorioz, guk geronek asimetriko dela hiztegi eraketa hau, *giltz-itz* horiek, hain zuzen ere, errrotzat hartuta. Edonola ere, Eusebio Erkiagak berak eza-ri-ezarian egin zuen bere hiztegiño berezia. Eskuz egindako

ohar horiek, haren alabak gure eskuetan jarriak, laster zabalduko ditugu, artikulu honen bigarren zatian. Damurik, hitz teknikoetatik kanpo ere, bestelako baliabide, esanahi eta adierak dira horkoak. Horrexegatik hobetsi izan dugu lehendabiziko honetan hitz tekniko hutsak modu egituratu batean ematea, hurrengoan lekeitiarraren oharrak zehatz-mehatz eta modurik jatorrenean jasotzeko.

Aipuaren aipuz, hiztegigintzaren saila aldarrikatu dugu gure zereginaren ardatz gisa. Bada, bestetik ere, *Gaceta Médica* horetan Erkiagaren jitezko lanik. Bistaratzten erraza da, medikuaren artean, lehen gogora ekarri dugun gizakiaren inguruko jakinminna eta hurbilte eginahala. Medikuek ofizioz eta ogibidez hurretik ezagutzen duten horrek eraman ditu, sarri askotan, medikuak giza zientziatan aditu izatera. Guztion ahotan izan daitezkeen izenak ez ditugu hemen, beste behin ere, alferrrik errepikatuko.

Osagile bilbotarrek ere, ezin huts halakoetan. Horra hor, medikuntza teknika hotzaren aldamenean, *Gaceta Médica* hile-rokoak eskaini ohi dituen emaitzak, literatura, giza zientzia eta orobat, inguruko oharbideez hornituriko idazti abarrak.

Gaiak eta idazleak anitzak dira. Erkiagak bigarren aiurri horren berri badu. Eta bere-bereak dituen ziria eta etena darabilta, eduki horiek euskaratzeko unean, medikuntzaren gai astunetatik aldendua, joko estilistikoetan tartekatzeko euskara batua eta bizkaiera.

Beste behin ere, Erkiagak maisu lana egiten digu. Bizitzan zehar gorderiko begirunearen zordun da. Begirune hori euskariari zor dio eta hizkuntzaren zirkituetan aurkitzen du iturria, sekula ere asebeteko ez dena. Asegaitza izan behar zuen lekeitiarrak euskara arazoetan, bera baitzen Euskaltzaindiaren enkarguz, 1967. urtean dei zabala biribildu zuena.

*Labur: itzurrena zaitu behar dugu, joskera arauak eta atzizkiak orobat, eta aditaren formak. Osterontzean izkeraren inda-*

*rra, izkera, moteldu, illundu, ta mabasmendu biurtuko dugu. Eta jaki-a, konpreni ezi-a ditekean izkera ez du i-ortxok ere ezertarako nahi izanen. (Anaitasuna, 30. zenb.)*

Berak ere, urte astunek osotoro zamatuta, Euskaltzaindiaren lan jorraketan jarraituko du. Kateatuta eta aldi berean ere, mugagaitz ikusten du bere burua Erkiagak itzulpengintza alorren. Gaiak estutzen du batetik; bestetik ere, askatu egiten du, aise joka baitezake hizkuntza eta hizkera gaietan, mamiaren edukia artez emanez gero.

Mugagaiztasun horren erakusle gisa ekar ditzakegu hona, lehen egin dugun aipamen berezia luzatuz, Ocamica herrikide eta osagilearen artikuluak laburzeko tenorea eta edua.

Labur zurrean esanda: Ian mardula, inondik inora Erkiagak batu zuena Bilboko *Gaceta Médicaren* inguruan. Izkutuko emaitzak, ostera, horkoak, euskal letretako hurrenkeran. Meneturaz, egunotako osagileentzat eta oro har, euskaltzale guziontzat baliagarri eta gidalerro izan daitezkeenak.

### 3. Hiztegia

Ohikoa da eta autore gehienek aipatua, gainera, medikuntza arloko euskal hiztegiak baduela gizalditako usainik. Goiz ibili ziren gure arbasoak gaitzen izenak ipintzen, izendazioak eragiten.

Hizkuntza bera zaharra den bezainbestekoa, horren ondorioz, izendatze horren emaitza. Geldiunerik gabekoa ere, jakina, mendeotako ekarría. Saihestu ezinak, era berean, herri mendikuntzaren jakituriak: sendabelarrak, petrikiloak, ukenduak eta abar luzea.

Hortaz, bide propioa, ziur asko, medikuntzako euskararena. Edonondik begira dakiola ere, bide xume eta txikerra. Egungo-tako eskakizun guztieie aurre egiteko askieza.

Hortik ere lehendik zetorrena landu beharra eta hura gaurko eginda, bestelakoak ere asmatzen jakiteko premia.

Kezka bera idoro erraza da Erkiagaren baitan. Aurren, euskal hitza erabiltzeko gogo eta uste sendoa; hurren, aurreko egingarri ez zaion neurrian, euskal eta erdal (esanahirik zabilenean ulertuta, jakina) hitzak batera, euskal usaineko moldea eratzeko; eta, azken, gaztelaniazko hitz soila, oso-osorik eta gordinean.

Esan gabe doa, bide beretik ere, grekeratik eta latinetik datozkigun eta osagileen ahotan maiz entzuten ditugun horiek ere, gehienetan, euren horretan jarraitzen dutela lekeitiarraren haitzurpean. Atzikibide ugariaren norainokoa ere alboratu gabe dabil haren egitadetan.

Azañ hutsean izanda ere, honetara eman ditzakegu Erkiagaren ñabardurak:

1) Erkiaga, maiz-sarri, gaztelaniazko hitz soilaren aurrean estrategia bikoitzaz baliatzen da. Lehendaurrez, euskarazko ordaina ematen du. Halakorik izan ezean, mailegu du irizpide. Horretara, **columna**: bizkarrezurra, **radiología**: radiología, **radiocirugía**: radiokirurgia.

2) Batuetan, hala eta guztiz ere, testuinguruaren arabera jokatzen du, eta gaztelaniazko maileguarekin batera, euskal hizperria asmatzen ere badaki. Adibidez, **epidemiología**: izurritzia.

3) Izenlagun edo adjektiboen erabilera ere kezkaburu zaio Erkiagari. Topo egiten du, ezinbestean, adjektibo erreferentzialen munduarekin. Erkiaga arazorik gabe doa konposizioaren ildotik. Bertan dihardu, Euskaltzaindiaren LEF batzordeko gomendioak bereak egin eta auzigai zaharrari hala-nolako intenbidea emanez.

Auzi hori, bestalde, oraindik orain bizi-bizirik dago. Terminología lanketan, esaterako, bestelako joera arrazoituak ere plazaratu izan dira, eragingarritasunaren eraginez edo. Lekeitiarrak, halakoetan, aurreko horien zirtolari erakusten du bere burua. Edozelan ere, badira aurretiaz esandakoaren salbuespe-

nak eta, neurri batean ere, aukako zuzenak, Erkiagaren lantza horretan.

4) Ortografiari dagokionez, dagoen-dagoenean utzi dugu, alegia, hitzak eta testuak argitaratu ziren modu berean. *Non fidia, ban gal* dio esaera zaharrak eta fidantzaren fidoz ez jokatzearen guk ere hobetsi egin dugu Erkiagaren ortografia bere horretan gordetzea, jakitun baikara, akats eta guzti, hori dela biderik seguruena haren lana osotoro errespetatzeko. Ezin ai patzeke utzi, modu berean, Erkiagak darabilen ortografiaren bilakaera. Mataza loditxuegia izango litzateke idazle bizkaitarraren ortografiarena, hementxe zeharo argitura gera zedin. Ez dago zokoratzerik, ordea, Erkiaga lan horretan euskara baturako ortografi bidean dabilenik. Medikuntza ahaletan, alabaina, lekeitiarrok hasierako gipuzkera eta bizkaiera (Arantzatzu aurreko ortografiarekin) ezari-ezarian bihurtu eta erakartzen du euskara batura.

#### 4. Laburdurak

Euskal ordainaren erreferentzia honetara eman dugu:

GMB: Gaceta Médica de Bilbao

85: Bolumenaren zenbakia

1988: Argitalpenaren urtea

7-8: Urte barruko aldizkariaren zenbakia

271: 271 orrialdea

Gaztelaniatik abiaturiko hiztegia izanda hauxe, sortzez eta moldez, norabide horretan ibili gara gu ere gurea moldatzera-koan. Horren ondorenez, letra beltz batekin zaigu gaztelaniako terminoa eta jarraian, letra arruntez, euskal ordaina, bakoitzaz zein zenbakitan plazaratu zen nabarmenduz. Gaztelaniazko termino berbera emateko euskal ordain batzuk ditugunean, agertu ohi diren hurrenkeran ematen ditugu.

## 5. Terminoen zerrenda

-A-

**Absceso Hepático:** Gibeleko min-otsoa. (GMB 85, 1988, 7-8, 271)

**Abscesos Intracraneales:** Burubarruko Trokoak. (GMB 76, 1979, 9-10, 477)

**Absentismo:** Absentismo (GMB 84, 1987, 3-4, 89)

**Acalasia:** Acalasia. (GMB 87, 1990, 2, 66)

**Accidentes de Tráfico:** Trafikoa Istripuak. (GMB 85, 1988, 5-6, 173)

**Acetil Salicilato de Lisina:** Lisinadun Acetil Salicilato. (GMB 85, 1988, 7-8, 275)

**Acidos Grasos:** Koipiegarratzak. (GMB 76, 1979, 1, 43)

**Aclaramiento de Antipirina:** Antipirinen Garbikuntza. (GMB 76, 1979, 9-10, 545)

**Aclaramiento Mucociliar:** Muki-Betazal argiketa. (GMB 85, 1988, 11-12, 393)

**Actinomicosis Cólica:** Hestelodiko Actinomycosis. GMB 87, 1990, 2, 87)

**Adenitis Granulomatosa:** Izter-Zorri koskortsua. (GMB 87, 1990, 2, 93)

**Adenocarcinoma:** Adenokarzinoma. (GMB 85, 1988, 1-2, 43)

**Adenoma oncocítico:** Guruin-Koskor oncocitica. (GMB 87, 1990, 4, 189)

**Adenopatías:** Adenopatiak. (GMB 87, 1990, 2, 93)

**Adenosin Monofosfato Cíclico (AMPc):** Adenosin Zikli-Monofosfato (AMPc) (GMB 75, 1978, 2, 151)

**Adictos a drogas por vía parenteral (ADVIP):** Zainetaratzez drogati di-renak (ADVIP) (GMB 87, 1990, 1, 8)

**Adrenalectomía:** Adrenalektomia. (GMB 77, 1980, 2, 95)

**Afección Hepática:** Eritasun Hepatikoa. (GMB 85, 1988, 5-6, 161)

**Afta:** Auspen. (GMB 77, 1980, 1, 69)

**Agregación Plaquetaria (AP):** Plaketan Biltze (AP). (GMB 75, 1978, 2, 151)

**Agua Clorurado-Sódica-Bicarbonatada:** Kloro-Soda\_bikarbonatozko ura. (GMB 87, 1990, 3, 120)

**Alcohol:** Alkola. (GMB 85, 1988, 11-12, 377)

**Alcohol y Conducción:** Alcohol eta Gidatza. (GMB 85, 1988, 5-6, 173)

- Alcolholemia:** Alkoholemia. (GMB 85, 1988, 5-6, 173)
- Alcoholismo:** Alkoholismoa. (GMB 76, 1979, 11-12, 589)  
Alkoholeria. (GMB 85, 1988, 1-2, 1)
- Alergia:** Alergia. (GMB 77, 1980, 6, 505)
- Alergia Medicamentosa:** Sendagaiengatiko Alergia. (GMB 86, 1989, 1, 45)
- Alimentación del Lactante:** Umien Elikatura. (GMB 75, 1978, 9, 753)
- Alteraciones Mentales y de la Conducta:** Adimen eta Biziak Aldape-nak. (GMB 85, 1988, 11-12, 421)
- Amebiasis:** Amebiasis. (GMB 85, 1988, 7-8, 271)
- Amianto:** Irunarriz-Aust. (GMB 76, 1979, 2, 111)
- Amiloidosis Cerebral:** Burumineko Amiloidosis. (GMB 84, 1987, 1-2, 45)
- Aminoácidos:** Aminoazidoak. (GMB 75, 1978, 4, 325)
- Amino-Acidos Esenciales:** Amino-Garratz Bearrezkoak. (GMB 75, 1978, 12, 1041)
- Amniocentesis:** Amniocentesis. (GMB 87, 1990, 2, 61)
- Amniocentesis Precoz:** Goiz Amniocentesis. (GMB 86, 1989, 4, 215)
- Ampulomas Benignos:** Anpuloma Ez-Galgariak. (GMB 85, 1988, 5-6, 155)
- Anafilaxia:** Anafilaxia. (GMB 77, 1980, 6, 505)
- Analgesia Epidural:** Epidural Min-Kentzea. (GMB 84, 1987, 7-8, 249)
- Anastomosis Ileoanal:** Ixtura-Ta-Azkiko Bilgunea. (GMB 84, 1987, 11-12, 441)
- Anatomía Patológica:** Anatomia Gaixotasuna. (GMB 84, 1987, 1-2, 23)
- Anestesia:** Anestesia. (GMB 77, 1980, 3, 233)
- Anestesia Española:** Anestesia Espaniarra. (GMB 78, 1981, 6, 531)
- Anestesia Espinal:** Bizkarrezuneko Sorgorraztea. (GMB 86, 1989, 2, 101)
- Anestesia Experimental:** Anestesia Experimentala. (GMB 78, 1981, 2, 109)
- Aneurisma Aorta:** Zaiñaundi, Zain-Zorro. (GMB 75, 1978, 11, 955)
- Aneurisma Complicado:** Aneurisma Korapilatua. (GMB 87, 1990, 4, 180)
- Aneurisma de Aorta Abdominal:** Beheitia-Aortako Sabeldura. (GMB 87, 1990, 4, 180)
- Angiodisplasia:** Hodi-Ehun Ugaltzea. (GMB 84, 1987, 3-4, 141)
- Angiodisplasia Gástrica:** Urdaileko Hodi-Ehun Ugaltzea. (GMB 84, 1987, 3-4, 141)
- Angiomiolipoma Renal:** Giltzurrunako Angiomiolipoma. (GMB 86, 1989, 2, 143)

- Angiopatia Amiloide Cerebral:** Burumuinko Patognomonia Amiloide. (GMB 84, 1987, 1-2, 45)
- Angiopatia Congofila:** Congogiloko Patognomonia. (GMB 84, 1987, 1-2, 45)
- Angiotensina:** Errenin-Angiotensina. (GMB 82, 1985, 9-10, 561)
- Ano Iliaco:** Ezkanda-Hezur Uzkizuloa. (GMB 84, 1987, 1-2, 73)
- Anorexia Nerviosa:** Anorexia Nerbiotsua. (GMB 76, 1979, 2, 159)
- Anticuerpos Inhibidores de la Hemaglutinación:** Odol-Eraspenaren Eragoztaille. (GMB 75, 1978, 9, 715)
- Anticuerpos Nonoclonales:** Gorputz-Zaintzaile Nonoclonoak. (GMB 84, 1987, 9-10, 363)
- Antiinflamatorios:** Hainditzeaitzikoak. (GMB 85, 1988, 7-8, 275)
- Aprendizaje:** Ikasketa. (GMB 77, 1980, 12, 829)
- Arterias de Células Gigantes:** Zelula Erraldoien Arteritis. (GMB 85, 1988, 3-4, 73)
- Arteriopatía Obliterante:** Arteripatia Eragozlea. (GMB 84, 1988, 9-10, 349)
- Arteritis de Células Gigantes:** Zelula Haundien Arteritis. (GMB 84, 1987, 5-6, 169). Zelula Giganteen Arteritia. GMB 85, 1988, 5-6, 161)
- Artritis:** Artritis. (GMB 84, 1987, 3-4, 135)
- Artritis Reumatoide:** Artritis Ubileribera. (GMB 85, 1988, 7-8, 275)
- Ascitis:** Urmina. (GMB 85, 1988, 9-10, 309)
- Asfixia Perinatal:** Jaio-Ondoren. (GMB 76, 1979, 1, 65)
- Asistencia Médica de Urgencia, SAMU:** Larrialdeko Mediku Laguntza, SAMU. (GMB 84, 1987, 3-4, 111)
- Asma Bronquial:** Biri-Hodietako Hats-Nekea. (GMB 87, 1990, 1, 11)
- Asma de Esfuerzo:** Entseguko Hats-Nekea. (GMB 85, 1988, 9-10, 315)
- Aspiración:** Xurgapen. (GMB 75, 1978, 2, 181)
- Asteroïdes:** Asteroidea. (GMB 87, 1990, 1, 32)
- Atención Primaria:** Oinarizko Sorozpidetzeri. (GMB 86, 1989, 1, 45)
- Ateroesclerosis:** Zaingorri-Barneko Itxitura. (GMB 76, 1978, 1, 43)
- Atropina:** Atropina. (GMB 85, 1988, 11-12, 369)
- Autoexamen:** Norberaren Azterketa. (GMB 84, 1987, 9-10, 333)
- Autoinjertos:** Autotxertoak. (GMB 85, 1988, 7-8, 223)
- Autopsias Judiciales:** Autopsia Judizialak. (GMB 84, 1987, 3-4, 105)

- B -

- Batido Ciliar:** Betazal Astinaldia. (GMB 85, 1988, 11-12, 393)  
**Bazo:** Bare. (GMB 84, 1987, 1-2, 35). Bare. (GMB 86, 1989, 1, 61)  
**Beneficios y Riesgos:** On-Gaitzak. (GMB 87, 1990, 2, 61)  
**Bibliografia:** Bibliografia. (GMB 87, 1990, 3, 130)  
**Biblioteca Hospitalaria:** Hospital Liburutegia. (GMB 87, 1990, 3, 130)  
**Biología:** Biología. (GMB 85, 1988, 3-4, 73)  
**Biopsia:** Biopsia. (GMB 85, 1988, 7-8, 261)  
**Biopsia Bucal:** Ahoko Biopsia. (GMB 84, 1987, 9-10, 333)  
**Biopsia Corial:** Corion-Biopsia. (GMB 87, 1990, 2, 61)  
**Bloqueos:** Hesialdiak. (GMB 79, 1982, 5, 299)  
**Bocio:** Golatxa. (GMB 87, 1990, 4, 189)  
**Botulismo:** Botulismo. (GMB 85, 1988, 9-10, 345)  
**Broncoscopia:** Bronkoskopia. (GMB 85, 1988, 5-6, 205)  
**Bronquio:** Birihodi. (GMB 85, 1985, 5-6, 205)  
**Brucelosis:** Brucelosis. (GMB 85, 1988, 7-8, 283)  
**Budesonide:** Budesonide. (GMB 87, 1990, 1, 11)  
**Bupivacaina Hiperbara:** Bupivacaina, Hiperbara. (GMB 86, 1989, 2, 101)

- C -

- Cambios Histológicos:** Histologia Aldaketak. (GMB 76, 1979, 9-19, 485)  
**Cáncer:** Minbizia. (GMB 76, 1979, 5-6, 331). Minbizi. (GMB 86, 1989, 2, 137). Minbizi. (GMB 87, 1990, 4, 185)  
**Cáncer Colo-Rectal:** Hestelodi ta Altornako Minbizia.(GMB 84, 1987, 9-10, 363)  
**Cáncer Colorectal:** Hestelodi ta Altornako Trunbila. (GMB 85, 1988, 3-4, 85). Hestelodi ta Altornako Trunbila. (GMB 85, 1988, 3-4, 91). Hestelodi ta Altornako Trunbila. (GMB 85, 1988, 5-6, 185)  
**Cáncer de Esofago:** Hestagorriko Minbizia. (GMB 84, 1987, 9-10, 385)  
**Cáncer de Mama:** Titi Bizien. (GMB 75, 1978, 1, 3) Titi-Bizien. (GMB 76, 1979, 1, 79). Bular-Sagarreko Min-Bizia. (GMB 77, 1980, 3, 174). Bular-sagarreko Minbizia. (GMB 86, 1989, 1, 1).  
**Cáncer de pancreas:** Areko Minbizia. (GMB 78, 1981, 9, 577)  
**Cáncer Gástrico:** Urdailleko Minbizia. (GMB 76, 1979, 3-4, 227)  
**Candidiasis:** Kandidiasis. (GMB 84, 1987, 3-4, 135)

- Capacitación Espermática:** Kaduriaren Gertuketa. (GMB 85, 1988, 3-4, 81)
- Cáncer:** Kartzinoma. (GMB 84, 1987, 1-2, 51)
- Cáncer de Mama:** Bular-Sagarreko Minbizi-Koskorra. (GMB 87, 1990, 3, 146)
- Cáncer Doble Primario Sincrónico:** Minbizi Bikoitz Lehendabiziko Aldi Bereko. (GMB 86, 1989, 3, 188)
- Cáncer Doble Unilateral:** Alderdi Bereko Koskor Bikoitza. (GMB 87, 1990, 3, 146)
- Cáncer Epidermoide:** Karzinoma Epidermoide. (GMB 78, 1981, 11, 713). Larrumintzeko Minbizia. (GMB 85, 1988, 7-8, 261)
- Cáncer Primario:** Lehen Maiako Kartzinoma. (GMB 84, 1987, 1-2, 51)
- Cariotipo:** Kariotipoa. (GMB 86, 1989, 4, 215)
- Cartílago de Crecimiento:** Hazkuntza-Kurruxka. (GMB 79, 1982, 1, 9)
- Cateterismo Cardiacos Derechos:** Bihotzeko Kateterismo Eskuinekoa. (GMB 79, 1982, 1, 39)
- Cecostomia:** Cekostomia. (GMB 84, 1987, 7-8, 303)
- Cervicobraquialgia:** Zerbokobrakialgia. (GMB 86, 1989, 2, 81)
- Cervix:** Garondoa. (GMB 76, 1979, 5-6, 331)
- Cicatrización:** Orbaindura. (GMB 75, 1978, 2, 129)
- Cilio:** Betazala. (GMB 86, 1989, 1, 11)
- Cirrosis Biliar Primaria:** Zirrosi Biliar Primarioa. (GMB 85, 1988, 5-6, 161)
- Cirrosis Hepática:** Gibelego Ezindrua. (GMB 75, 1978, 3, 275)
- Cirrosis Hepática Alcohólica:** Gibelego Zirrosi Alkoholikoa. (GMB 85, 1988, 7-8, 253). Gibelego Zirrosi Alkoholikoa. (GMB 85, 1988, 9-10, 337)
- Cirugía:** Kirurgia. (GMB 84, 1987, 5-6, 177). Kirurgia. (GMB 86, 1989, 1, 61)
- Cirugía Gastroduodenal:** Urdail eta Esteasierako Zirugia. (GMB 76, 1979, 3-4, 199)
- Cirugía Precoz:** Goiz Kirurgia. (GMB 84, 1987, 3-4, 147)
- Cirugía Radical:** Kirurgi Errrotikoa. (GMB 85, 1988, 7-8, 261)
- Citocromos P-450 y B-5:** P 450 eta B-5 Zitokromoak. (GMB 76, 1979, 9-10, 545)
- Citología Vaginal:** Eme-Tutuko Kizkin-Iztia. (GMB 75, 1978, 10, 793)
- Claudicación:** Erreneri. (GMB 85, 1988, 5-6, 179)
- Clínica:** Klinika. (GMB 85, 1988, 3-4, 73). Klinika. (GMB 78, 1981, 9, 577)
- Clorpromazina:** Clorpromazina. (GMB 85, 1988, 11-12, 369)
- Coagulación:** Gatzaketa. (GMB 82, 1985, 9-10, 561)

- Colágeno:** Kolageno. (GMB 75, 1978, 2, 129)
- Colectomía Total:** Colectomia osoa. (GMB 84, 1987, 11-12, 441)
- Colesterol:** Kolesterol. (GMB 75, 1978, 2, 99). Koipagai. (GMB 76, 1979, 1, 43)
- Colgajos Musculares:** Giar Dindilak. (GMB 87, 1990, 3, 123)
- Colitis Ulcerosa:** Esteko Zauria. (GMB 84, 1987, 1-2, 23)
- Colón:** Hestelodi. (GMB 87, 1990, 2, 87)
- Columna:** Bizkarrezur. (GMB 76, 1979, 1, 1)
- Complicación Postparto:** Erditze Ondoko Korapilaketa. (GMB 84, 1987, 7-8, 303)
- Complicaciones:** Konplikazioak. (GMB 85, 1988, 1-2, 23). Korapiletak. (GMB 86, 1989, 2, 101). Korapiletak. (GMB 86, 1989, 3, 174)
- Complicaciones Postmastectomía:** Ebakuntza Ondorengo Naaspillak. (GMB 75, 1978, 1, 3)
- Comunicación Interauricular(CIA):** Biotz-Belarriño Bidea. (GMB 85, 1988, 11-12, 401)
- Conducto Auditivo Externo:** Entzunesko kanpoko Konducto. (GMB 78, 1981, 11, 713)
- Contenido Escrotal:** Barrabillak. (GMB 84, 1987, 11-12, 429)
- Cordal:** Azken-Agin. (GMB 85, 1988, 9-10, 327)
- Corticoides Tópicos:** Corticoide Tipikoak. (GMB 84, 1987, 9-10, 381)
- Crioglobulinemias:** Crioglobulinemia. (GMB 84, 1987, 1-2, 7)
- Crohn Prepuberal:** Crohn Gizarourreko. (GMB 85, 1988, 7-8, 247)
- Cromosomas:** Kromosuma. (GMB 76, 1979, 11-12, 639)
- Cubital:** Ukondo (ko). (GMB 86, 1989, 4, 219)
- Cuerpos Cavernosos:** Gorputz Haitzulotsuaren. (GMB 84, 1987, 3-4, 147)
- Cultivo de Esputo:** Kerru-Lanketa. GMB 85, 1988, 7-8, 229)

- D -

- Defecto Específico:** Huts Espezifikoa. (GMB 86, 1989, 2, 107)
- Defectos Partes Blandas:** Alde Biguneko Marketsak. (GMB 87, 1990, 3, 123)
- Deferentes:** Deferenteak. (GMB 85, 1988, 1-2, 23)
- Deficiencia de Ácido Ascórbico:** Azido Askorbikoaren Urritasuna. (GMB 82, 1985, 7-8, 517)
- Deficiencia de Vitamina C:** Bitamina C-ren Urritasuna. (GMB 82, 1985, 7-8, 517)

**Delirio de Infestación:** Infestazio-Eldarnioa. (GMB 87, 1990, 1, 55)

**Desarrollo:** Azkunza. (GMB 76, 1979, 1, 1)

**Descompresión Radicular:** Erroen Hertsadura Kentsea. (GMB 85, 1988, 5-6, 179)

**Desdoblamiento Paradojico Segundo Tono:** Bigarren soinua Paradoxi-koki Destoleztua. (GMB 87, 1990, 1, 29)

**Deshabituación:** Ohitura Kentzeko Bideak. (GMB 77, 1980, 4, 267)

**Desmoide:** Desmoide. (GMB 84, 1987, 7-8, 307)

**Detección Precoz del Aneurisma de Aorta Abdominal:** Beheitil-Aorta-ko Aneurismaren Goiztiar Bilatzea. (GMB 87, 1990, 4, 180)

**Diabetes Insípida Craneal:** Diabetes Geza Kraneala. (GMB 85, 1988, 1-2, 9)

**Diagnosis Primaria:** Lehenengo Diagnosis. (GMB 84, 1987, 1-2, 67)

**Diagnóstico:** Diagnostiko. (GMB 84, 1987, 1-2, 35). Igarpidea (GMB 84, 1987, 9-10, 385). Igarpena (GMB 85, 1988, 7-8, 247). Azterkuntza (GMB 86, 1989, 3, 174). Diagnosikoa (GMB 87, 1990, 1, 55)

**Diagnóstico Diferencial:** Bereizi Diagnostikoa. GMB 84, 1987, 1-2, 7). Igarpide Bereiztailea (GMB 85, 1988, 3-4, 73). Igarpide Bereiztailea GMB 85, 1988, 11-12, 421)

**Diagnóstico Precoz:** Igarpene Azkarra. (GMB 76, 1979, 9-10, 477). Gaitz-Azterpen Goiztiarra (GMB 77, 1980, 3, 173). Azterbide Goiztiarra (GMB 78, 1981, 5, 343). Igarpene Goiztiarra (GMB 86, 1989, 1, 1)

**Dieta:** Jan-Neurketa. (GMB 76, 1979, 1, 43)

**Dieta Hipocupremiante:** Jatemodu Hikupremiatzaille. (GMB 77, 1980, 1, 21)

**Dietética Infantil:** Janari-Izti. (GMB 75, 1978, 9, 753)

**Diferente Tipo Histológico:** Histologi Eredu Bizikoa. (GMB 86, 1989, 3, 188)

**Difusión:** Hedapen. (GMB 86, 1989, 4, 223)

**Dipropionato de Beclometasona:** Beclometasonaren Dipropionato. (GMB 87, 1990, 1, 11)

**Disquinesia Ciliar:** Betazal Deskinezia. (GMB 86, 1989, 2, 107)

**Disquinesia Tardía:** Berandiko Diskinesia. (GMB 78, 1981, 6, 395)

**Distrofia Muscular Progresiva Tipo Limgirdle:** Giar-Distrofi Aurrera-korra, Lim-Girdle Eredua. (GMB 84, 1987, 11-12, 445)

**Dolor:** Mina. (GMB 79, 1982, 5, 299)

- Dolor en Reposo:** Atsedenaldiko Oinazea. (GMB 85, 1988, 9-10, 349)  
**Drogadicción por Vía Parenteral:** Zainetan Ziztakoz drogazaletasuna. (GMB 87, 1990, 3, 115)  
**Drogas:** Drogak. (GMB 85, 1988, 11-12, 369)  
**Drogodependencias:** Droga menpetasuna. (GMB 76, 1979, 11-12, 589)

— E —

- Ecocardiografía:** Ekokardiografia. (GMB 84, 1987, 1-2, 67)  
**Ecofonocardiografía:** Ekofonokardigrafia. (GMB 87, 1990, 1, 29)  
**Ecografía:** Oiartzun-Idazpen. (GMB 75, 1978, 2, 167). Ecografia (GMB 84, 1987, 11-12, 437)  
**Edad suicida:** Burhiltze Adina. (GMB 85, 1988, 5-6, 167)  
**Edema de Extremidades Inferiores:** Barreneko Soinadar Andeza. (GMB 85, 1988, 5-6, 195)  
**Edema Pulmonar Neurogeno:** Kiri-sorpeneko Biri-Antura. (GMB 75, 1978, 10, 873)  
**Educación Médica Continuada:** Medikuntzaren Hezkuntza jarraikikoa. (GMB 87, 1990, 3, 130)  
**Eficacia:** Araginkortasun. (GMB 86, 1989, 2, 81)  
**Embarazo:** Haurdunaldia. (GMB 77, 1980, 11, 773). Ernalaldi (GMB 84, 1987, 5-6, 225)  
**Embolismo del SNC:** CNS Embolismo. (GMB 84, 1987, 1-2, 67)  
**Encefalitis:** Garun handitua. (GMB 77, 1980, 5, 409)  
**Endocarditis Infecciosa:** Endokarditis Zornatsua. (GMB 87, 1990, 3, 115)  
**Endoscopia Urgente:** Endoskopía Estuzko. (GMB 75, 1978, 12, 997)  
**Enfermedad de Crohn:** Crohn Gaitza. (GMB 84, 1987, 1-2, 57)  
**Enfermedad de Foix-Alajouanine:** Foix-Alajouanine-ren Eritasuna. (GMB 84, 1987, 5-6, 219)  
**Enfermedad de Ormond:** Ormond-en Gaitza. (GMB 85, 1988, 5-6, 195)  
**Enfermedad de Vías Periféricas:** Itxulinguruko Arnas Bideen Eria. (GMB 86, 1989, 4, 223)  
**Enfermedad Inflamatoria Intestinal:** Hesteetako Gaixo Hanturatsua. (GMB 85, 1988, 7-8, 247)  
**Enfermedad por Arañazo de Gato:** Katu Erpekaden Ondoko Eria. (GMB 87, 1990, 2, 93)

- Enfermedad Profesional:** Lantegi Gaizotasun. (GMB 84, 1987, 9-10, 317)
- Enfermedad Pulmonar Obstructiva Crónica (EPOC):** Biri-eri Oztopagari Zaharra (EPOC). (GMB 79, 1982, 1, 39)
- Enfermedad Reumática:** Erremua-Gaisotasuna. (GMB 87, 1990, 3, 120)
- Enfermedades Cerebro Vasculares:** Buru-zaiñetako Gaisoak. (GMB 76, 1979, 7-8, 445)
- Enfermedades importadas:** Kanpotiko Gaitzak. (GMB 85, 1988, 7-8, 271)
- Enfermedades Profesionales:** Lantegi Gaisotasun. (GMB 84, 1987, 11-12, 421)
- Enfermedades de Transmisión Sexual:** Setsuz Hilarazte Gaixotasuna. (GMB 85, 1988, 3-4, 109)
- Enfermos \*Funcionales\*:** \*Bibizideko\* Geixoak. (GMB 75, 1978, 2, 99)
- Enzimas Microsomales:** Enzima Mikrosomalak. (GMB 76, 1979, 9-10, 545)
- Enzimoinducción:** Enzima-Indukzioa. (GMB 76, 1979, 9-10, 545)
- Epidemiología:** Epidemiologia. (GMB 76, 1979, 11-12, 589). Epidemiología (GMB 86, 1986, 1, 27). Helderitzia (GMB 84, 1987, 7-8, 254). Izurritzia. (GMB 85, 1988, 1-2, 1). Izurriegia (GMB 86, 1989, 1, 53)
- Epitelización:** Larru-Azaldura. (GMB 75, 1978, 2, 129)
- Escirro:** Escirro. (GMB 84, 1987, 1-2, 51)
- Esclerosis Lateral Amiotrófica:** Esklerosis lateral Amiotrofikoa. (GMB 76, 1979, 9-10, 555)
- Esclerosis Múltiple:** Zaingogordura anizkorra. (GMB 85, 1988, 11-12, 421)
- Escoorbuto:** Ezkorbut. (GMB 82, 1985, 7-8, 517)
- Esfinter Esofágico Inferior (EED):** Hestegorriko Beheitiko Xurunbela. (GMB 84, 1987, 3-4, 83)
- Esófago de Barrett:** Barrett Hestegorri. (GMB 85, 1988, 1-2, 43)
- Estafilococo Aureus:** Estafilococo Urretsua. (GMB 87, 1990, 3, 115)
- Estallido Testicular:** Barrabil Eztanda. (GMB 84, 1987, 11-12, 429)
- Estereotaxia:** Estereotaxia. (GMB 86, 1989, 2, 133)
- Esteriotipo Inerte:** Esteriotipo Sorgorra. (GMB 77, 1980, 12, 829)
- Esteroides Tópicos:** Agiriko Sendagai Esteroideak. (GMB 87, 1990, 1, 11)
- Esternosis Lumbar:** Gerrontze Meartasuna. (GMB 85, 1988, 5-6, 179)
- Estesosis Coronaria:** Koroneta Estutasuna. (GMB 86, 1989, 3, 195)

- Estres:** Stressa. (GMB 85, 1988, 5-6, 149)
- Estimulación Eléctrica Epidural:** Bizkarrezurmuiñean Eernarazte Elektrikoa. (GMB 85, 1988, 9-10, 349)
- Estructura Clínica Obsesiva:** Egitura kliniko Obsesiboa. (GMB 86, 1989, 4, 240)
- Estudio Estadístico:** Ikerketa Estadistikoa. (GMB 84, 1987, 3-4, 105)
- Estudio Retrospectivo:** Aitzerransko Estudioa. (GMB 82, 1985, 1, 37)
- Etiología:** Jatorria. (GMB 86, 1989, 3, 174)
- Evaluación:** Balioneurketa. (GMB 85, 1988, 3-4, 97)
- Evolución:** Aldaera. (GMB 84, 1987, 5-6, 225)
- Exoftálmos:** Begi-Irteera. (GMB 75, 1978, 9, 703)
- Exoftálmos Unilateral:** Alde Batetako Exoftálmos. (GMB 84, 1987, 1-2, 39)

## — F —

- Factores de Riesgo:** Arrisku Eragileak. (GMB 84, 1987, 7-8, 254)
- Falsa Hematuria:** Gezurtiko Hematuria. (GMB 84, 1987, 1-2, 15)
- Fármacos:** Farmakoak. (GMB 77, 1980, 11, 773)
- Fase Prehospitalaria:** Hospital Aurretiko Epea. (GMB 84, 1987, 7-8, 289)
- Fecundación Asistida:** Ermalte lagundua. (GMB 86, 1989, 3, 183)
- Fecundación in Vitro (FIVTE):** Berinean Eernaltzea. (FIVTE). (GMB 86, 1989, 2, 97)
- Fenoxibenzamina:** Fenoxibenzamina. (GMB 85, 1988, 11-12, 369)
- Feocromocitoma:** Feocromocitoma. (GMB 87, 1990, 4, 205)
- Ferritina:** Ferritina. (GMB 85, 1988, 9-10, 297)
- Feto:** Hilortuak. (GMB 85, 1988, 11-12, 369)
- Fibroendoscopia Urgente:** Premiazko Fibroendoskopía. (GMB 82, 1985, 5, 333)
- Fibrosis Retroperitoneal:** Sabelsare-Atzeko Pirueria. (GMB 85, 1988, 5-6, 195)
- Fiebre Tifóidea:** Sukar Ustel. (GMB 84, 1987, 3-4, 129)
- Fiebre Reumática:** Fiebre Reumatica. (GMB 76, 1979, 3-4, 233)
- Fisiopatología:** Fisiopatología. (GMB 76, 1979, 9-10, 485)
- Fístulas:** Plautiriak. (GMB 77, 1980, 2, 133)
- Fluido Pericilar:** Peribetazal Isurkina. (GMB 86, 1989, 1, 11)

**Formas Benignas:** Tankera Ez-Gaiztoak. (GMB 85, 1988, 9-10, 345)

**Fosfatasa Alcalina:** Fosfatas Alkalina. (GMB 85, 1988, 5-6, 161)

**Fosfosal:** Fosfosal. (GMB 86, 1989, 2, 81)

